

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Agirre Lasarte

*Donostia,
Gipuzkoa
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa. Ama donostiarra zuen eta aita Algortan jaioa: Donibane Lohizunen ezagutu zuten elkar, gerrako exiliatu bezala. Aitaren anaia Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen. Ramon zazpi senidetan hirugarrena zen. 3 urtetik 8 urtera bitarte Karmele Esnalen ikastolan ikasi zuen, Artzai Oneko etxe batean. Umetan Euzkal Iztundea antzerki taldearen obra batzuetan hartu zuen parte, bi anaiarekin batera, Maria Dolores Agirre zuzendariarekin. Gaztetxo dantza taldean ere ibili zen. Santo Tomas lizeoan jarraitu zituen ikasketak, eta ondoren arkitektura ikastera joan zen, Valladolidera, marraztea asko gustatzen zitzaiolako. Ondoren Parisen ia urtebete igaro zuen; han antzerkia egiten hasi zen. Bueltan, interpretazio ikasketak egin zituen Antzerti eskolan, eta ordutik aktore lana izan du bizimodu. Antzerkia, telebista eta zinema. Aktore ezaguna da. Euskararen aldeko lanetan jardun du beti. San Telmo museoan egindako elkarriketa.

Zintak

DON-211

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-10-19
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Familia abertzalekoa

- **Erref:** DON-211/003

- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoek elkar nola ezagutu zuten. Familia abertzalea.

2. Euskara ez zuen etxetik jaso

- **Erref:** DON-211/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Aita Algortakoa zen eta aitaren familiak euskara galdua zuen. Aitak euskara ikasteko pare bat liburu izaten zituen gau-mahaian, baina ez zuen ikasi. Gurasoek ikastolara bidali zituzten, euskara ikas zezaten nahi zutelako. Amak ere beraiekin batean ikasi zuen, haren familian ere etena egon baitzen euskararen transmisioan. Garai hartako Donostiako erdal giroan beraiek atentzioa ematen zutela dio.

3. Ikastolan, Karmele Esnal andereñoarekin

- **Erref:** DON-211/005
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolan ibili ziren, Karmele Esnal andereñoarekin. Pisu normal batean ematen zituzten eskolak. Oroitzapen onak ditu. Matematikak ere egiten zituzten, baina gehienbat kantatu egiten zuten.

4. Gurasoen ausardia umeak ikastola klandestinora bidaltzeko

- **Erref:** DON-211/007
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:07:11. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Karmele Esnalen ikastola klandestinoak zen, baina norbaiten bitartez jakiten zuen inspektorea noiz joango zen eta egun horretan txangoan ateratzen ziren. Ikastolan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren; lau urte ingururekin hasi eta 9 urte ingurura arte. Gurasoak ausartak izan zirela dio, umeak lehenbizi ikastolara eta gero Santo Tomas Lizeora bidaltzeko. Elbira Zipitriaren ikasleekin bazuten harremana. Ikastola bera zela esan zitekeen. Ikastolan ibili ziren beste familia batzuk.

5. Amarako iturria, umetako ikuskizuna

- **Erref:** DON-211/009
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:11:21. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Amara Berriko lehenbiziko eraikinean bizi ziren. Garai hartan eraiki zen Anoetaraingo guztia. Aurretik baratzeak eta padura zeuden. Iturria ere eginda zegoen beraiek umeak zirenerako eta ikuskizuna izaten zen beraientzat.</p>

6. Maria Dolores Agirrerekin 'Zurgin zaharra' antzezlanean

- **Erref:** DON-211/011
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:12:58. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Karmele Esnalek Jarrai antzerki taldekoekin eta haien inguruko kultur mugimenduarekin harremana zuen. Maria Dolores Agirreren Euskal Iztunde Eskola. Telesforo Monzonen 'Zurgin zaharra' antzezteko bi ume behar zituzten eta Karmele Esnalengana jo zuten. Hiru anaiak hartu zuten parte Antzoki Zaharrean egin zen obran. Maria Dolores Agirre, nortasun handiko emakumea. Gogoan du gerora beste obra batean ere paper txiki bat egin zuela.</p>

7. Txikitatik antzerkirako zaletasuna

- **Erref:** DON-211/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Txikitatik zeukan antzerkirako zaletasuna. Ama ere antzerkizalea zen eta

antzezlanak ikustera eramaten zuen Ramon. Lotsatia izan arren, aktore izatera iritsi zen.

8. Euskal kantagintza berriaren mugimendua

- **Erref:** DON-211/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Garaiko euskal musikarien diskoak izaten zituzten etxean: 'Ez dok amairu', Mixel Labegerie, Xabier Lete, Lurdes Iriondo... Kontzertuetara ere joan izan zen.

9. Euskarazko aldizkari eta liburuak

- **Erref:** DON-211/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Euskarazko aldizkariak izaten zituzten etxean. Ikastolan 'Xabiertxo' liburua erabiltzen zuten. Marrazteko zaletasuna ere badu Ramonek. Arkitektura ikasten hasi zen baina ez zuen amaitu. Komiki zalea ere bada.

10. Arkitektura ikasketak Valladoliden

- **Erref:** DON-211/023
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:32:52. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Marraztea gustuko zuela eta, arkitektura ikastera joan zen Valladolidera. Ez zuen karrera amaitu. Arkitekturaren alde artistikoa atsegin zuen, ez ordea alde teknikoa. Euskaraz ikasteko aukerarik ez izanaren pena zeukan. Hitz teknikoak euskaratu eta agenda batean apuntatzen zituen.

11. Parisetik bueltan 'Antzerti' eskolara

- **Erref:** DON-211/024
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:40:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

'Antzerti' antzerki eskolan interpretazio ikasketak egin zituen. Irakasle oso onak zeuden. Karrera eta soldaduskaren tarteko garaian, Parisera joan zen urtebetez. Bertan mimo ikastaro bat egin eta orduantxe sortu zitzaion aktore izateko grina. Donostiara bueltatu zenean, 'Antzerti'-n izena eman zuen.

12. 'Antzerti' eskolatik telebista eta zinemara

- **Erref:** DON-211/025
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

'Antzerti' eskolan ibili ziren aktore ezagun batzuen izenak aipatzen ditu. Handik gutxira sortu zen ETB eta Txirri, Mirri eta Txiribitonen programan lan txikiak egiteko aukera izan zuten aktore batzuek. Euskal zineman ere parte hartzen hasi ziren. 'Segoviako ihesa', 'Ehun metro', 'Zergatik Panpox?' eta 'Amaseigarren aidanez' aipatzen ditu.

13. Euskal zinemaren mugarriak

- **Erref:** DON-211/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Proiektu interesgarria jarri zen martxan, ETB eta Eusko Jaurilaritza tartean zirela: telebistarako hiru euskarazko filmen ekoizpena. 'Ehun metro', 'Zergatik Panpox?' eta 'Amaseigarren aidanez' izan ziren. Baina proiektuak ez zuen jarraipenik izan. 'Aupa Etxebeste!' mugarritzat jotzen da baina batez ere urte askoan ez zelako euskal zinemarik egin.</p>

14. Euskal zinema gaur egun

- **Erref:** DON-211/027
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Azken urteetako euskal zinemari buruzko iritzia. Film gutxi egiten direla uste du, nahiz eta teknikari eta aktore oso onak dauzkagun. Sinestea falta zaigu.

15. Musika eta umorea uztartzea gogoko

- **Erref:** DON-211/029
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:51:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Hasierako garaietan, ikuskizun musikal bat sortu zuen Agustin Arrazola aktorea eta Joserra Senperena piano-jolearekin. Gero etorri zen Inaxio Tolosarekin lankidetzat. Umorea eta musika uztartzea beti izan du gogoko.

16. Komedia eta drama

- **Erref:** DON-211/030
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:51:29. **Bukatu:** 00:55:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ramonen iritziz, aktore komiko on bat aktore dramatiko on bat baino osatuagoa da. Komediak sen berezi bat eskatzen du. Hala ere, askotan gehiago baloratzen da aktore dramatikoa. Adibide batzuk aipatzen ditu. Bi generoetan sentitzen da eroso Ramon.

17. Euskaraz lan egitea, lehentasuna

- **Erref:** DON-211/031
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:55:49. **Bukatu:** 00:58:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Euskaraz lan egitea lehentasuna izan da Ramonen ibilbidean, batez ere antzerkian. Ez zaio gustatzen euskal publikoari gazteleraz zuzendu beharra.

18. Antzerkiaren xarma: publikoarekin hartu-eman

- **Erref:** DON-211/032
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:58:29. **Bukatu:** 00:59:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerkiak badu telebistak eta zinemak ez duten zerbait: publikoarekin hartu-eman.

19. Euskarazko fikzioan sinestea falta zaigu

- **Erref:** DON-211/034
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 01:00:27. **Bukatu:** 01:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

ETBn egindako lehen telesailean parte hartu zuen. Gazteleraz izan zen. Euskarazko fikzioari buruzko iritzia. Nahiz eta profesional oso onak dauzkagun, sinestea falta zaigu. Garai batean aktoreentzako lan asko eta kalitatezkoa zegoen euskal telebistan. Gaur egun 'Goenkale' bezalako eguneroko telesail bat faltan botatzen du.

20. Aktore lanbidea, gorabeheratsua

- **Erref:** DON-211/035
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:05:37. **Bukatu:** 01:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Oso goiz hasi zen Madrilen lan egiten, baina inoiz ez du sentitu hemen lana falta zitzaiolako hara joan beharra. Aktore lana gorabeheratsua da, baina berak nahiko lasai eraman izan du.

21. Ramonen pertsonaia ezagunenak

- **Erref:** DON-211/037
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:10:09. **Bukatu:** 01:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ramonen pertsonaia ezagunenak. 'Bai horixe' euskara ikasteko saioa. 'Goazen!' telesaileko "Zuzen". "Etxebeste". "Benjamín" ('La casa de papel'). Jendea askotan gazteleraz zuzentzen zaio, telebista eta zinema mundua gaztelerarekin lotzen dutelako.

22. Euskaltzalea betidanik

- **Erref:** DON-211/039
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:15:03. **Bukatu:** 01:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Ramon beti izan da euskaltzalea eta gaur egun gehiago. Askotan kanpoko telesailak hemen euskaraz egin ahal izatea gustatuko litzaioke.

23. Euskararen egoera gaur egun

- **Erref:** DON-211/041
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:17:37. **Bukatu:** 01:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen jakintza maila handiagotu da baina erabilera ez hainbeste. Ramonen ustez, norbanakoek baino erakunde publikoek daukate euskara bultzatzeko ardura eta horretarako erabaki ausartak hartu behar dira. Gazteek beraien aisialdian euskarazko eskaintza izan behar dute.

24. Ramonen lan ezagunak zineman

- **Erref:** DON-211/043
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:20:44. **Bukatu:** 01:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ramonek parte hartutako film ezagun batzuk aipatzen dira: 'Aupa Etxebeste' eta 'Agur Etxebeste'. 'Oreina'. 'Errementari'. 'Irati' (oraindik estreinatu gabea). 'Handia'. 'Igela'. 'Txarriboda'. 'Alaba zintzoa'.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com